



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA**

MEXIKOKO LEGEBILTZARKIDEEK ETA ENPRESARIOEK INTERESA DUTE BERDINTASUNEN ETA ERAKUNDEEN ZABALKUNDEKO EUSKAL EREDUAK EZAGUTZEKO

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, atzo, Mexikoko Senatu eta Kongresu Federaletan, Morelos Estatuko Kongresuan eta Industrialen Klub ospetsuan egindako bileretan egon zen. Bilera horietan euskal Ganberak 2005eko martxoan onetsitako Berdintasunerako Legearen sorrera eta emaitzak aztertu ziren, baita erakundeak herritarrekiko harremanak hobetzeko duen zabalkunde-eredua ere. Kontu horiek biak, baita Europar Batasunean deszentralizazio politiko eta ekonomikoa dela-eta izaten ari den eztabaida ere, mintzagai nagusiak izan ziren Izaskun Bilbao aste honetan herrialde hartara egiten ari den bisitan.

Bisitaren bidez, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak erantzun dio Mexikoko zenbait estatutako legebiltzarretan bi gairen inguruan piztutako interesari. Gai horiek Berdintasunerako Legea eta bere emaitzak dira, alde batetik; eta, bestetik, tokiko agenda digitalen programaren bidez Eusko Legebiltzarrak Europako mailan erakundeen zabalkunde dela-eta koordinatzen dituen lankidetzak-programak. Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarraren funtzionamendua eta hark Europa eraikitzerakoan duen eragina izan zen bilera guztietako beste mintzagai bat.

Hasteko, lehendakaria asteazkenean Cuernavacara joan zen, Morelos Estatuko Kongresura, eta bertako lehendakariarekin egon zen, Marta Patricia Francorekin, baita berdintasunaren arloko arazoak lantzen dituen batzordeko kideekin ere, Berdintasunerako Legea onetsi eta gero Euskadin bizi izandakoa azaltzeko. Interesik handiena sortu zuten gaiak izan ziren Eusko Legebiltzarraren osieran legeko kuotek izandako eraginak, eta bereziki Genero Indarkeriaren Aurkako legeko kontzeptuak, baita Berdintasunerako Defentsa Erakundeak ere. Gauza bera gertatu zen atzo, lehendakariak berrogeita hamar emakumezko legebiltzarkide federal baino gehiagorekin egindako bilera handian, Mexiko Barruti Federalean.

Euskal lehendakaria, atzo ere, Santiago Creel Senatuko Mahaiko lehendakariarekin bildu zen, baita erakunde horretako lehendakariordeekin ere. Bilerako gai nagusia izan zen Eusko Legebiltzarrak bere webgunearen bidez eskaintzen dituen informazioko eta parte-hartzeko zerbitzuak. Hortik abiatuta, Mexikoko teknikari eta legegile batzuk Euskadira etorriko dira, eta elkarlana egingo da.

Lehendakaria, era berean, Mexikoko Industrialen Klubean egin behar zen bilera batera joan zen. Antolakunde horrek herrialde hartako enpresarioentzat interesgarriak diren gaiak buruzko bilerak eta foroak antolatzen ditu. Mexikoko



hamabost enpresa garrantzitsuren jabeekin elkartu zen Izaskun Bilbao (enpresa horietako batzuek oso harreman estua daukate Euskadirekin), eta berrikuntzaz aritu zen, hori baita euskal ekonomiak datorren urteetan izango duen nortasun-ikurra, politikan ere erabili beharrekoa.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria igandean itzuliko da Euskadira, gaurko egitekoak amaitutakoan: Beatriz Paredes PRI Alderdi Iraultzaile Institutuzionaleko lehendakariarekin biltzekoa da; baita, ondoren, Mexikoko Estatuko Kongresuko alderdi guztietako diputatuekin, erakundeen gardentasuna dela-eta; azkenik, larunbat goizean, Morelosko Emakumeen Legebiltzarreko bilkura batera joango da, Cuernavacara.





PARLAMENTARIOS Y EMPRESARIOS DE MEXICO SE INTERESAN POR EL MODELO VASCO DE IGUALDAD Y EL DE APERTURA INSTITUCIONAL

La presidenta del parlamento vasco participó ayer en sendas reuniones en el senado y congreso federal de México, en el congreso del estado de Morelos y en el prestigioso Club de los Industriales destinadas a repasar la génesis y resultados de la ley de igualdad aprobada por la Cámara vasca en marzo de 2005 y explicar el modelo de apertura institucional que desarrolla la cámara de Vitoria para mejorar sus relaciones con la ciudadanía. Ambas cuestiones al igual que temas relacionados con el debate sobre descentralización política y económica que se vive en el seno de la unión europea fueron el centro de las intervenciones que desarrolló Izaskun Bilbao en la visita que realiza esta semana al país azteca.

La presidenta del Parlamento responde con esta visita al interés mostrado por varios parlamentos de estados mejicanos sobre dos cuestiones concretas, la ley de igualdad y sus resultados y los programas de cooperación sobre apertura institucional que coordina a nivel europeo el parlamento vasco a través del programa de las agendas digitales locales. Igualmente el funcionamiento de la CALRE y el significado de sus gestiones en el proceso de construcción europea fue otro de los temas abordado en todos los encuentros.

La visita de la presidenta se inició el miércoles con una visita al Congreso del estado de Morelos, en Cuernavaca en donde mantuvo una reunión con la presidenta de la institución Marta Patricia Franco y las y los componentes de la comisión que trabaja en cuestiones de igualdad para explicar la experiencia vasca tras la aprobación de la ley de igualdad. Los efectos de las cuotas establecidas en la ley en la composición del parlamento vasco y en especial los conceptos establecidos en la ley sobre la violencia de género fueron, junto con la defensoría de igualdad, las cuestiones que despertaron mayor interés. Lo mismo ocurrió en una multitudinaria reunión que la presidenta mantuvo ayer con más de medio centenar de legisladoras federales en la sede del congreso en México distrito federal.

Ayer la presidenta vasca mantuvo un encuentro también con el presidente de la mesa del senado Santiago Creel y los vicepresidentes de esta institución. En este caso los servicios de información y participación que presta el Parlamento Vasco a través de su página web fueron el principal tema de una reunión de la que se derivará una visita de técnicos y legisladores mejicanos al país vasco y operaciones de cooperación en estas materias.

La agenda de la presidenta incorporó igualmente un encuentro en el Club de los industriales de México una organización que patrocina encuentros y foros de reflexión sobre temas de interés para el empresariado del país centroamericano. En



su encuentro con quince industriales de importantes empresas mexicanas, algunas de ellas con relación muy estrecha con el país vasco, Izaskun Bilbao se refirió a la innovación como seña de identidad de la economía vasca en los próximos años y a la aplicación de ese concepto a la práctica política.

La presidenta vasca regresará el domingo al País Vasco después de completar una agenda de trabajo que le llevará a mantener hoy una reunión con la presidenta del PRI, Beatriz Paredes, mantener una reunión sobre transparencia institucional con diputados de todos los partidos del congreso del estado de México y participar en una sesión del Parlamento de Mujeres de Morelos el sábado por la mañana en Cuernavaca.

